

3.FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Zerbitzu enpresa guztiak bezala hornitzaile eta bazkide batzuk behar ditugu. Gure enpresak ezin ditu gauza guztiak egin eta horretarako beste enpresa batzuen zerbitzuak erabili behar ditugu. Ayalak zuzendari roll-a hartuko du, besteen lana ondo doala ikusteko. Minervak bezeroak lagunduko ditu, dudaren bat baldin badute beraiekin hitz egiteko eta aholkatzeko. Nuetuk dirua kontrolatuko du eta Stevenek harreman publikoak egiteaz arduratuko da.

Gure enpresako hornitzaile nagusiak bidai-agentziak, catering-ak, garraio konpainiak, ebentuek antolatzeko lekuak, eta abar behar ditugu. Horretarako enpresa batzuk hautatu ditugu, gure ideologiarekin bat egiten dutenak. Ez dute animaliekin probarik egiten, LGBTQ+ komunitatea errespetatzen dutenak, janari beganoa edo begetarianoa eskaini ahal dezakete,...



Enpresa hauen artean *Viajes Arana* bidai-agentzia daukagu, Gasteizen kokatuta dago eta langilearen eta bezeroaren arteko harreman bikaina dute, eta bezeroarentzat ahalik eta errazena den guztia egiten dute.

Janaria hartzerako orduan *Gutizi Catering*-a daukagu, partikularrentzat zein enpresentzat lan egiten duen Catering enpresa bat da, gizarte edo enpresa ekintza bat egin behar duen ororentzat. Hainbat ebentu motarako janaria prestatzen dute: urteurrenak, bataioak, jaunartzeak, enpresa gosariak, konbentzioak, gala afariak, ... Bezeroak leku batetik bestera eramateko eta ekartzeko *Alsa* bus enpresarekin kolaboratuz, guretzat eta bezeroentzat merkeagoa da.

